

# Bero-beroan

## “Bat” en 62. zenbakia kalean da

**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRAK**, *Bat* soziolinguistika aldizkariaren 62. zenbakian, helduen euskalduntze-alfabetatzea hartu du gai monografikotzat. Hitzaurrea Edurne Brouardek egin du. Ikuspegi historikoa eskaini dute Joseba Erkiziak (HABERi buruz), Mertxe Mujikak (gau eskolei buruz) eta Joxe Manuel Odriozolak (euskalduntze alfabetatzearen zentzuaz). Gaur egungo egoeraz aritu dira honakoak: Antton Iñurrategi, Aitziber Sarasola, Sagrario Aleman, Titto Betbeder eta Jakes Bortairu.

## Eztarria urratuko zaielako ez dute galeseraz egingo

**GALESEKO HEGOALDEAN**, Bro Morgannwg kontseiluan, telefono zentralerako langileek deiak ingelesez baino ez hartzeko eskubidea izango dute

hemendik aurrera. Komunikazioetako Langileen Batasuna izeneko sindikatuak uste du, zenbat eta gehiago hitz egin, langileen eztarriek urratzeko arrisku handiagoa dutela eta bi hizkuntzetan egin beharrean bakarrean eginez gero osasun arazo gutxiago izango dituela langileak. Batzuk pozik dira erabakiarekin eta beste batzuk ez hainbeste. Galeseraren Legearen arabera, herri erakunde guztiak zerbitzuak bi hizkuntzetan eskaini behar dituzte. Galestarren herenak daki galesera eta Bro Morgannwg kontseiluan galesera hiztunen kopurua ez da %10era iristen.

## Legazpin Zingizango Euskara Elkarteak sortu berri dute

**EUSKARA ELKARTEA** martxoan jarri zuten abian hainbat legazpiarrek (Gipuzkoa) herriko euskal giroa sustertzeko asmoz. Hurrengo erronkari heldu eta orain web gunea jarri dute abian [www.zingizango.com](http://www.zingizango.com) helbidean.

## BAHEA

Iñigo Fernandezek (Euskara eta publizitatea izeneko blogaren egilea) erabili.com-en esanak: “(...) Gazteei ikasgelan euskara saldu nahi badiegu, hori da lortu behar dugun lehen-lehendabiziko gauza: euskara saltzaile gisa ikusi behar luke bere burua irakasle bakoitzak. Hau da, kontziente izan behar du irakasleak asko egin dezakeela egunero aurrean dituen ikasleei euskara saltzeko, eta horretarako, argia izan behar duela, seduzitzailea, limurtzailea, norbaiti astebururako plan jakin bat saldu nahi dionean jokatzeko duenean bezala, adibidez. (...) Hortaz, esan gutxiago, eta demostratu gehiago egin behar zaie. Euskara modan dagoela esan beharrean, eskolara modan dauden artista, musikagile edo kirolari euskaldunak eramanez, esaterako. (Ez da nahitaezkoa haiek ikasgelara fisikoki eramatea. Ez gara alferrik bizi teknologia berrien garaian). Esan nahi da, azkarrak izan, eta ikasleengan eragin nahi dugun erantzuna lortzen saiatzeko, motibatzaile eraginkorrak aurkitu eta eskaini behar dizkiegula, beren gustukoak eta euskarazkoak, baina ez euskaraz dudelako atsegin egin nahi dizkiegunak”.

Nafarroako Gobernua eskoletan ezartzen hasi den British programa dela-eta Kalen Astizek (Sortzen Ikasbatuaz) esanak Berrian: “Hau ez da hezkuntza eredu bat; inolako azterketarik ez dute egin ezarri aurretik, ez dute haren emaitzen inguruko ebaluaziorik egin, eta helbururik ere ez dute finkatu. British programa duen G eredu besterik ez da. Esperimentu hutsa. Eleaniztasuna bermatzeko eredu-tzat saltzen dute, baina nekez lortuko dute hori bertako hizkuntza ukatzetik abiatzen badira”.

## Negoiazio kolektiboa

EAEko Lan Harremanetarako Kontseiluaren azken txostenak dio Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 387.811 langile hitzarmenik gabe daudela. Gainera, epe laburrean hitzarmena ixteko esperantzarik gabe daude, patroi batzuk aurka baitaude. Guztira 551 hitzarmen: 421 enpresetakoak eta 130 sektorekoak, oraindik sinatu gabe daude. Urteko lehen hiruhilabete-koan 7.918 langileri eragiten dieten 44 hitzarmen baino ez dira sinatu. Nafarroako egoera, dirudienez, ez da oso bestelakoa, nahiz eta hobe izan. Zergatik egoera hau? Enpresaburuak ez daude aurreko urteetan baino egoera ekonomiko okerragoetan. Askoz ere hobeto daude. Espainiako Bankuaren arabera, enpresetako onurek 2006an %31,7ko igoera izan zuten. Horrek 2005ean

lortutako %29,7koa baino hazkunde handiagoa esan nahi du. Beraz, enpresak langileen egoera soziala eta ekonomikoa hobetzeko moduan daude. Hortaz, egoera horren arrazoa beste nonbait bilatu behar da: gizartean eta sindikatuen esparruan. Dударik gabe patrioiak lasai eta harrotuta daude, langileak zein sindikatuak ahul sumatzen dituztelako. Horregatik daukate blokeatuta hainbat hitzarmenen negoziazio kolektiboa, azpitiko eskaintzak eginez. Sindikatuek jarrera aldatzen ez badute, nabarmendu nahia alde batera uzten ez badute eta negoziazio kolektiboaren korapiloa askatzeko sindikatuen artean batzen ez badira, galtzaileak, beti bezala, langileak izango dira.

Juan Mari Arregi

## NaBai-PSN, EAJ-PSE aliantzak gauzatuko ote diren zain

### HAUTESKUNDE GAUAK

bezala, inkestek ere era guztietako zaporea uzten dute alderdietan, baina joera batzuk ere markatzen dituzte eta lehia gune gogorrenak ere gorriz marrazten dira. Nafarroari buruzko inkesta gehienek azpimarratzen dute UPN eta Nafarroa Bai-PSN blokearen artean izango den lehia, eta korapiloa PSN-koen atzamarrek askatu beharko dute. Beste esku

batzuk ere beharko dira akaso, eta aipatutako bi bloke nagusien parekotasuna iragarrita, ANV Iruñeko Udalean edo Ezker Batua Legebiltzarrean, funtsezkoak izan daitezke lema noren eskuetan uzten den erabakitzeko.

Herritarren gehiengoaren artean UPN gobernu nagusietatik kalera tzearena grina bihurtu da dagoeneko, baina eskuindarren indarraren ezagule, etsipen ukitua ere barreiatzen da aldi berean. Berriz ere, Ferrazek erabaki beharko du aldaketa ematen den ala ez, PSNko hainbat sektoregatik balitz, Sanz eta Barcinak jarraituko bailukete boterean. Gobernu aldaketa gauzatzen bada,



INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

NaBaik joan den larunbatean Iruñean egindako ekitaldia.

altzairuzko hesi gogorrena eraiki beharko dute sozialista eta abertzaleek, UPNk botere gune oso garrantzitsuetatik egingo dion bonbardaketari eutsi ahal izateko. Hamar urte atzera eginez, hor dago *Diario de Navarra*-k haizatu zuen Otano auzia, honek gidatutako hiruko gobernu hankaz gora bota zuena.

**BESTE GALDERA IKUR** nagusia sozialista eta jeltzaleen balizko aliantzarena izango da; Josu Jon Imazen azken urteetako adierazpen eta jarre- rek bederen norabidea argi jarri dute eta Bizkaian eta Araban gauzatzeko aukera handia egon liteke. Eta Gipuzkoan zer orduan? Markel Olanok argi

adierazi du bere asmoa EA eta EB-Aralarrekin aritzea dela, emaitzek horretarako beta ematen badute. Baina era horretako aliantzak zehaztea ez al zen bada EBBren eskumenekoa?

### ISTILUTSU HASI ZEN

kanpaina ANVko zerrenden erdia hankaz gora botaz, ez zen beharrik Candido Conde Pumpidoren zalantzarik PSOEk egindako jokoa zein den ikusgarri

jartzeko. Sozialistek ezker abertzalearen aurkako gatazka tresna gisa erabili dute Alderdi Politikoan Legea. Eta gordinago ere erabil zezaketen, ANVko gainerako hautagaitza guztiak parte hartzetik kanpo utziz. PSOEk hori egin ez izana zaila da ulertzea bake prozesuaren dinamikatik kanpo. Ba ote dago dinamikarik, ordea? PS0Eren eta Batasunaren bileren *Gara*-ren kontaketak fase baten amaiera adierazten du. Hurrengo fasea, hastekotan, gogortasunetik hasiko dela dirudi: oinarrizko eskubide eza, ezker abertzaleko zenbait pertsonen protesta eta era-soak hauteskundeetan, hauteskunde biharamoneko tentsioa...

gure!  
arteak  
euskaraz

